

ikaskaria

Kirolaria al zara?

Miren Zabaleta



7:30, korrika apur bat egin... 10:30, triatletak animatu! Igeri, bizikleta, korrika... puf! Hori nekea! 15:30, tenis partida ikusi telebistan... 16:00, kartetan jokatu... 17:30, bi pilota partida ikusi, frontoian bertan... Barriola txapeldun! 19:30, futbol partida bateko markagailuarekin sufritu... 21:00, autoa hartu eta etxera bueltatu, irratian jardunaldiko azken partida jokoan dela...

Ni ez naiz sekula neska kirolzalea izan... Beno, beti gustatu izan zait ibiltzea... jorain inoiz baino gehiago! Gustuko dut mendira joatea, bai! Korrika apur bat egiten dut forman egoteko. Eskiatzera joaten naiz ahal dudanean, baina lehiakortasuna ez zait sekula gustatu. Hori bai, nahiz eta kirol gehiegi egin ez, joan den igandean kirola nonahi dagoela konturatu nintzen.

Mutil-lagun kirolaria daukat. Bai, zure bikoteak ez dizkizu katarroak soilik kutsatsen, afizioak ere kutsatzen dizkizu. Bestela, nola azal daiteke igande goiz batean 7etan esnatu eta korrika egitera joatea? Bikotea kirolaria izanda, ez dago beste azalpenik. Egia esan, eta inork probatu nahi badu, apurtxo bat beranduago, agian, goizean goizeko korrikaldi batek on egiten dio gorputzari. Kirola egin ondoren, hobe gosaltzen da, eta astegunean eginez gero, gusturago egiten duzu lan, goizeko 9etan

eguerdian bezain fresko sentitzen baitzara. Hori bai, ezingo dituzu bazkalondoreneko aharrasiak ezkutatu...

Izan ere, igandeko kontuarekin jarraituz, gustura joaten da bat herriko triatloi taldea animatzera. Hori bai dela benetako kirolaria izatea. Neska zein mutil, guztiak dira kirolari. Onena eurekin lasterketaren ondoko momentuak banatzea da: hau dela, bestea dela... mila kontu izaten dute kontatzeko! Ordu eta erdian horrenbeste bizipen izatea ezinezkoa dela pentsatzen duzu... eta tarteka, inbidia apur bat ere sentitzen duzu. Baina hau ez inori esan, gero!

Ondoren bazkaria dator. Arroza eta arkumea patatekin batzuk (triatleten menua deitzen dio zenbaitek), entsalada eta barazkiak besteek, bakoitzak nahiago duena.

Telebistan Nadal-Federer tenis partida: “horiek besoak gaztetxoarenak!” “Eta hori bai hanka pare!”, baina ez besoek, ez hankek, ez zioten balio izan igandekoan.

Bitartean, gu kartetan, jo eta ke. Bada karta-jokoa kiroltzat duenik, izan ere, izerdia botatzen da, bai, kartetan. Igandean galdu egin nuen... zer egingo diot, ba!

Karta-jokoaren ostean, pilotarekin eta pilotariekin geneukan hitzordua. Pilota partidak, partida oro bezala, zuzenean gozatzekoak dira. Eta frontoian bertan lagun bat badaukazu, ba, hobe. Jokinek igandeko partida irabazi egin zuen. Zoragarri jokatu zuen, gainera! Eta... Abel Barriola ezagutzen al duzue? Leitza bizi den pilotari nafarra da Abel. Nire pilotari kutuna da... aupa Abel!

Eta noski, nolakoa izango litzateke futbolic gabeko igande bat? Ezin irudika dezaket... Ni ez naiz oso futbolzalea, baina bai, gustatzen zait talde ezberdinek zer egin duten jakitea. Igandean, Mallabiatik Zarautzera gindoazela, futbola geneukan entzungai. Irratsaioa osatzen duten ahots horiek igandeeekin lotzen ditut. Asteazken goiz batean ahots horiek entzungo banitu, igandea litzatekeela pentsatuko nuke, ziur!